



Familia-testuingurua eta errendimendu akademikoa



Familia-ebaluazioa: HOME eskala



- HOME eskala familia-testuinguruaren kalitatea ebaluatzeko modu bat da.
- Elkarriketa egituratua da, eta familiari etxean bertan egiten zaio, seme-alabak aurrean daudela.
- Gaztelaniazko bertsioa M. Carmen Moreno doktoreak egin zuen, Sevillako Unibertsitatean.
- Euskarazko bertsioa Etxadi taldeak egin du, UPV / EHUKo Psikologia Fakultateko Bilakaeraren Psikologiako laborategian.


HOME II eskala

- HOME eskalan familia-testuinguruaren kalitateari buruzko adierazle batzuk lortzen dira.
- Balorazioa gurasoek emandako datuekin eta etxebizitza zuzenean behatuta egiten da.



HOME eskala: Adierazleak I

1. **Inguru fisikoaren kalitatea**: etxean espazio lasai, eroso eta atsegina egotea eginkizun akademikoak egiteko, eta beste bat jolaserako.



2. **Ikasketa-materialak**: etxean liburuak, hiztegiak, interneterako sarbidea eta eskolako materialak egotea.

HOME eskala: Adierazleak II

3. Esperientzien

aniztasuna: familiako helduen ardura haurrek askotariko esperientziak izatea da: kirolak, ikuskizunak, dokumentalak, museora joatea, bidaiak, etab.




4. Gizarte-heldutasuna

bultzatzea: familia ordutegi antolatu baten arabera bizi da, eta horrek segurtasuna ematen du. Gurasoek haurren gizarte-harremanak erraztu eta errespetuz jokatzeko irakasten diete.

HOME eskala: Adierazleak III

5. **Onartzea**: helduek haurrak ezaugarri berezi eta guzti onartzen dituzte. Ez dute zigortzen ez lotsarazten, eta haurrari iritziak eta nahiak adierazten uzten diete.



6. **Afektua**: gurasoak afektiboak dira haurrekin, goraipatu egiten dituzte, erantzun egiten diete eta trebetasunak erakusten uzten diete.

HOME eskala: Adierazleak IV

7. **Bultzatze akademikoa:**
gurasoek haurrei kontzeptu berriak ikasten eta eskolako ikaskuntzak sendotzen laguntzen diete. Lekuei, hitzei, abestiei, eta abarri buruz hitz egiten dute.



• Caldwell, B. & Bradley, R. (1984) HOME observation for measurement of the environment. Little Rock, AR: Center of Child Development and Education.

8. **Eskola-jardueraren aldeko interesa:** helduek hezkuntza-sistema ezagutzen dute, haurren tutoreekin harremanak dituzte, ikastetxeko jardueretan parte hartzen dute, egindako lanen aldeko interesa agertzen dute, eta etxeko lanak gainbegiratzeko dituzte.

Beste adierazle batzuk

1. Gatazka gutxi izatea.

Seme-alabek eztabaida eta istiluak etengabe ez ikusteko ahaleginak egiten dituzte gurasoek.



2. **Bikotearen harreman onak**: bikoteak harreman onak baditu, etxeko giroa aproposagoa da lan akademikoa egiteko eta adimen-jarduerari begira.



Beste adierazle batzuk II

3. **Frustrazio hoberena:**
gurasoek seme-alabei
arauak betetzeko
eskatzen diete, eta
familian betebeharrak
ezartzen dizkiete txikiak
direnetik (hiru urte
dituztenetik gutxi
gorabehera).



4. **Balorazio intrintsekoa:**
gurasoek seme-alaben
jokabidearen eta izaeraren
alderdi guztiak baloratzen
dituzte; ez dituzte arrakasta
akademikoarengatik soilik
baloratzen.



Beste adierazle batzuk III

5. **Estilo demokratikoa:**
gurasoek indukzioa
(arauak azaltzea),
eskakizuna eta afektua
konbinatzen dituzte.



6. **Igurikimen egokiak:**
gurasoek seme-alaben
gaitasunetan konfiantza
dutela erakutsi behar dute,
helburu egokiak eta neurriz
kanpokoak ez direnak
lortzeko.